Bibliotecas Públicas de Navarra
Nafarroako Liburutegi Publikoak

Webaren Artxiboa

Espainiako Webaren Artxiboa Espainiako Liburutegi Nazionala eta autonomia-erkidegoak elkarlanean egiten ari diren proiektu bat da. Garapen-fasean dagoen artxibo honen helburua da web-orriak (blogak, foroak, dokumentuak, irudiak, bideoak eta abar) biltzea. Espainiako Interneteko dokumentu-ondarea zaintzeko eta ondarean sartzeko aukera ziurtatzeko.

Erabiltzailea Internet Archiven sar daiteke, ordaindu gabe eta nahi duen ordenagailutik. Proiektua 1996an hasi zuen irabazi-asmorik gabeko erakunde horrek eta haren helburua da mundu osoko web-orrietako multimedia baliabideak eta historikoak zaindu eta gordetzea

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan (Ondarenet) eta Katalunian (Padicat), egindako proiektuak kontsulta daitezke, hala nola Europako beste liburutegi nazional batzuek egindakoak ere.

- The National Library of Finland
- Bibliothèque Nationale de France
- British Library
- Österreichische Nationalbibliothek (Austria)
- Swiss National Library (Suiza)
- Landsbókasanfn Íslands Háskólabókasanfn (Islandia)

Baita munduko beste batzuk ere:

- Library of Congress (EEUU)
- National Library of Australia (Pandora)
- Bibliotheca Alexandrina (Egipto)
- The National Diet Library of Japan (WARP)
- National Library of New Zealand
- National Library of Korea (OASIS)

Hala ere, Espainiako Liburutegi Nazionalak garatutako proiektua kontsultatu nahi bada, erabiltzaileak joan beharko du autonomia erkidegoen kontserbazio-zentroetan edo Madrilen dagoen Espainiako Liburutegi Nazionalean gaitutako postuetara.

Nafarroan Lege Gordailuko Bulegoaren ardura da erailtzaileei sarbidea ematea eta proiektua burutzea.

2017ko azarotik aitzina, jasotako webguneek osatutako bilduma hau Nafarroako Liburutegian kontsulta daiteke. Bi kontsulta-postu ezarri dira: bata, Lege Gordailuaren Bulegoan (8,30 a 14,30) eta, bestea, 2. Solairuko Ikertzaile gelako ordenagailu batean (14,30 a 20,30).

Hiru baliabide daude eskura:




- DLe Openway Back. Urruneko mahaigain bat da, proba-fasean dagoen sarbide-atari baten bidez kontsultak egiteko prestatuta dagoena. Oraingoz bilaketa soilik URL bidez egin badaiteke ere, lanean ari dira bilaketak gai eta izenburuen arabera egiteko edo, gako-hitzak erabiliz, testu osoan bilatzeko.








- Nafarroako Webaren Artxiboa. Nafarroan bildutako URLak dituen hazi-zerrenda bat da (Excelen dago) eta urruneko mahaigainean bilatzea errazagoa egiten du. Ikonoa sakatzen badugu Excel fitxategi bat irekiko da eta lagungarri gertatuko zaigu kontsulta urruneko mahaigainean egiteko eta Nafarroak proposatutako webguneak ezagutzeko.







- Azkenik, Espainiako Webaren Artxiboa eskura izanen ditugu bilduma masiboak eta hautatuak, baita proiektu honetara Bildu diren beste autonomia erkidego batzuetakoak ere, hala nola Aragoikoak, Gaztela-Mantxakoak, Gaztela-Leongoak, Madrilgo Erkidegoak, Valentziako Erkidegoak, Galiziakoak eta Errioxakoak)



Jabetza Intelektualaren Legeak (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua) atari honetatik eskura daitezkeen edukiak babesten ditu. Eduki horiek behar bezala justifikatutako ikerketa-helburuekin baino ezin dira erreproduzitu, eta eskubideen titularrek berariazko baimena eman ondoren baino ezin dira zabaldu.

Bilduma honen berezitasuna sa bilketa-data zehatzean bildutako webguneetan nabigatu daitekeela, eta, batzuetan, jada existitzen ez diren webguneetan.

Gure helburua da herritarrek Nafarroako Webaren Artxiboa eraikitzen eta garatzen parte hartzea. Horregatik, proiektu honi buruz gehiago jakin nahi baduzu edo, zure ustez, bildu ez den eduki edo webguneren badago, ez izan zalantzarik, esaguzu, deplegal@navarra.es helbidera idatzita

Nafarroako Liburutegia. Lege Gordailuaren Bulegoa

Jendearentzako ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era

Antonio Pérez Goyena pasalekua 3, 2. solairua

31008 Iruña (Nafarroa)

848 42 56 83

Argibide gehiago hemen:

- La BNE en 59 segundos: ¿Por qué la BNE guarda páginas web?
  https://www.youtube.com/watch?v=2bXW0l8hJiA&feature=youtu.be

- ELN-ren blogeko Webaren Artxiboaren gaineko sarrerak
  http://blog.bne.es/blog/tag/archivoweb/

- Webaren Artxiboaren gainean egindako aurkezpenak
  https://www.slideshare.net/bne/tag/archivo-web

- Mar Pérez Morillok egindako aurkezpenak (Espainiako Liburutegi Nazionaleko Sareko Argitalpenen Gordailuko Kudeaketa Arloko burua)
  https://prezi.com/user/-gwt5hj5fkgr/

- Internet Archive TecnoXplora-n (2018ko otsaila)
  http://www.lasexta.com/tecnologia-tecnoxplora/internet/conoce-tesoros-que-almacena-internet-archive-asi-era-msdos-arcade-google_2015022357f790e70cf2a2e945b3d3ab.html

- Internet Archive eldiario.es-en (2016ko urria)
  http://www.eldiario.es/hojaderouter/internet/internet_archive-aniversario-Brewster_Kahle-wayback_machine_0_567993287.html

- Webaren artxiboaren eta LG elektronikoaren gaineko jardunaldia (2013ko uztaila)
  https://www.youtube.com/playlist?list=PLR097kwxNJ7uE71uo7WxYJLOQNCgq5gZq